

Euskararen kutxa

Ahoskera eta prosodia euskararen irakaskuntzan

Artikulu honek helburu du euskara-irakasleei gogoeta eragitea, euskararen ahoskerari eta prosodiari buruz, eta, aldi berean, gaitasun prosodikoa garatzeko jarraibide eta argibideak ematea. Bide hori egiteko, Axularren Gero maisu-lanaren “Irakurtzaileari” deritzon atalean oinarrituta, “Irakasleari” aitzinsolasean azaldu da aferaren muinaren jatorria. Ondoren, zer-nolako ibilbide urri eta malkarra izan duen ahoskerak euskararen irakaskuntzan, eta, berrikiago, Helduen Euskalduntzearen Oinarritzko Curriculumean (HEOC) nolako isla daukan alderdi fonologikoak gaitasun fonologikoaren barruan; ebaluazioan ere azaltzen da mailaz maila. Ahoskerak ere izan du Euskaltzaindiaren arreta, eta EBAZ arauaren berri ematen da: euskara batuaren ahoskera zaindua. Aurrerago ahoskeraren eta prosodiaren inguruko proposamenak eta ikerlanak berabide, hauxe garatzen da: Txillardegiren euskal azentuaren inguruko proposamena eta hari buruzko artikulua aitziindaritasuna azalduz, ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek egindakoa, eta, ahoskeraren gaineko oso lan interesgarria. Azkenik, teoria guztia praktikan ipintzeko, proposamen curricular eta didaktikoa egiten da, gaitasun prosodikoa HEOCean txertatu eta hari buruzko jakintza eta kontzientzia zabaltzeko.

Gako-hitzak

ahoskera, azentua, gaitasun prosodikoa, intonazioa, ortoepia, prosodia

1. IRAKASLEARI

Egun batez, konpainia on batean, irakaslerik baizik ez zen lekuan nengoela, ekarri zuen solasak, izan zen perpausa, ez zuela, deusek ere hainbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola ahoskerari buruzkoa geroko uzteak, egunetik egunera, biharretik biharra luzatzeak. Eta on zatekeela, gauza honetaz artikulu baten, euskaraz, guztiz ere euskara irakasleentzat egitea: eta hartan, gero dioenak bego dioela erakustea. Konpainia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zitzaion artikulua egiteko kargua. Eta beste guztien artetik, hasi zitzaizkidan niri neuri aditzera ematen, lehenbizian keinuz eta aieruz, eta gero azkenean, klarki eta agerriz, nik behar nituela, egiteko hartan eskuak sartu. Ordea nola ez bainintzen neure buruaz fida, desenkusatu nintzen ahal bezainbat. Baina alferrik, zeren hain zinez eta batetan lotu zitzaizkidan non ezetz esateko bide guztiak itxi baitzizkidaten. Eta hala deliberatu nuen, buru-eragozgarri bezala, artikulutxo baten, honen gainean egitera. Izan ere, gure artean honelako iritziak eta baieztapenak aditu nituen:

- "Euskarak ez du azenturik!"
- "Azentua, bai, baina ez da azentu-markarik idazten"
- "Bai, horixe esan nahi dut"
- "Baina, azentuak oso desberdinak dira hizkera batetik bestera!"
- "Agian 'doinua' eta 'azentua' nahasten ari zara..."
- "Ahoskerak ere oso bestelakoak dira euskalkien artean"
- "Bizkaian 'z' ahoskatzea galduta dago. Irakatsi behar dugu 'z' ahoskatzen"?
- "Oinarrizko ahoskera landu behar litzateke, baina!"
- "Ikasleek berez ikasten dute"
- "Prosodia landu behar da"
- "Pro... zer?"
- "..."

Ohartu nintzen irakasleen artean ere nahasmen handia zegoela. Badirudi euskara irakastea, gehienetan, baztertuta utzi izan dugun alorra izan dela, edo, behintzat, bakanetan landua. Areago, nahaspila handia zegoen adierazteko zer den ahoskera, prosodia, intonazioa, doinua...: joera izaten dugu dena zaku berean sartzeko. Artikulu honetan, kontzeptuak erraztearren, "ahoskera"-ren izenean fonetikarekin zerikusia duen oro sartuko dugu. Dena dela, aurrera jarraitu aitzin, komeni da bereizketa egitea, ez baitira gauza bera ahoskera eta prosodia. Batetik bokalen, kontsonanteen, bokal-bilkuren eta kontsonante-bilkuren ahoskera dugu, euskal alfabetoaren bokal eta kontsonante guztiak nola ahoskatu, eta, gainera haiek elkarrekin topo egiten dutenean nola ahoskatu ere. Bestetik, prosodiak hiru adar nagusi hartzen ditu bere baitan: azentua, erritmoa eta intonazioa. Hirurak oso garrantzitsuak, baina lehenengoak ardura digu batik bat. Auzia ez da berria euskararen baitan, denok dakigunez. Aski da, esate baterako, euskara batuaren hastapenetan Koldo Mitxelena idatzitako hitz hauek gogora ekartzea: "Esaten dena nola idatzi behar den jakiteak badu bere axola. Are gehiago, ordea, egun eta gure artean, irakurtzerakoan ikusten dena nola ebaki behar den irakastea" (Mitxelena, 1988, 184. or.). Txomin Peillen euskaltzain zuberotarrak behin esan zigun, Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarrean, euskara batua ez dela bakarrik idazteko, hitz egiteko ere badela. Ezbairik gabe, euskara batu ondo ahoskatua ederra da. Hurrengo lerroetan ondoko honetaz arituko naiz:

- Ahoskera eta irakaskuntza
- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) eta ahoskera
- Euskara batuaren ahoskera zaindua (EBAZ)
- Ahoskeraren eta prosodiaren inguruko proposamenak, argibideak eta ikerlanak
- Proposamen curricular eta didaktikoa.

2. ZER ZUZENDU BEHAR DA?

Euskara irakasteko metodoetan, oso toki txikia hartu izan dute beti ahoskerak eta prosodiak: gehienetan entzundako esaldiak errepikarazi edota irakasleak "Ozenki irakurri!" irakurri izan dugu zenbait liburutan. Baina, ozenki irakurtzeko nola ahoskatu behar den jakin behar da, bestela alferlana egingo dugu. Nik berrogei urte daramatzat euskara irakasten, eta beti, era bestera edo bestera, ahalegindu izan naiz ikasleei oinarri-oinarrizko ahoskera-arauak helarazten: txistukariak eta zenbait kontsonante nola ahoskatu, kontsonante-bilkurak, azentu-ariketak... Hala ere, laudorioak eta eragozpenak berdintsu jaso izan ditut: "Kepa, baina hau zergatik ez da irakasten maila guztietan? Lehenengo urratsetatik ekin behar zenioke"; "Orain berandu samar da"; "Merezi du?"; "Euskararen zailtasunari ahoskera gehitu behar diogu? Nahikoa lan!". Erantzunak erantzun, niri iritziz, landu beharreko arloa dugu ahoskera ezinbestez: ezin egin dezakegu zozaarena. Euskara batua ez da aditez, morfosintaxiz, deklinabidez eta lexikoz bakarrik osatzen. Ahoskerak mezua baldintza dezake: ikasleak gaitasun prosodikoaz jabetu behar du. HE-Ocean, ordea, ez da gaitasun prosodikoa aipatzen. Gaitasun prosodikoak lotura zuzen

eta estua dauka gaitasun linguistikoarekin, diskurtsiboarekin, soziokulturalarekin eta pragmatikoarekin.

Askotan esan da hizkuntza bat jakitea gaitasun komunikatiboa izatea dela eta norberaren hizkuntza ez den beste bat ikasten denean, gaitasun hori erdiestea izaten dela xedea. Era berean, gaitasun hori hainbat azpigaitasunen interakziotik datorrela esaten da. Hori guztia onartuz gero, ahozkoari dagokionez, ezin ukatuzkoa da gaitasun prosodiko azpigaitasun horietako bat izan behar dena. (Gaminde Terraza et al., 2014, 14. or.)

Oroitzen naiz joandako mendeko 80ko hamarkadan euskara irakasteko “Jalgi hadi” metodoa (Hondarraitz taldea, 1981) erabiltzen genuenean. Oraindik gaur egun ere gogoan dugu. Liburu haietan “entzun eta errepikatu” ariketa asko egiten ziren. Eztabaidagarria da entzungaietan erabiltzen zein doinua oso bortxatua ez ote zen, baina, ikasleek, behintzat, nolabaiteko doinua bereganatzen zuten. Doinua zeharo garrantzitsua da: haren bidez, azentuaz askoz hobeto jabetzen dira ikasleak: ez dago azentu egokirik, kantatu gabe. Bai, “kantatu” horixe baita hizkuntzak ikasteko gakoetariko bat. Ez dago egoki ahoskatzerik, berezko doinurik erabili barik. Gaur egun, ikasgeletan abesteari utzi omen diogu: abestu egin behar da, hitzak eta egiturak ikasteko ez ezik, ahoskera eta doinuak barneratzeko ere bai. Eta zer esanik ez, bertsoak! Baita antzeztu ere. Ezin ahanztu ditza-kegu behinolako jarduerak, “jolastasuna” zerienak. Beste hizkuntza batzuk ikasten ditugunean, neure eskarmentuan, behinik behin, irakasleek toki berezia eskaini izan diote ahoskerari. Frantsesaren eta ingelesaren ahoskera bihurri askoa da, eta ikasi eta landu egin behar da; esaterako, aski da amaraunean arakaturik sumatzeko zenbat webgune agertzen diren frantsesaren era ingelesaren ahoskera lantzeko, esaterako, https://www.lepointdufle.net/ressources_fle/exercices_de_prononciation.htm edo <https://www.cambridgeenglish.org/learning-english/activities-for-learners/?skill=pronunciation&rows=12>.

Esan gabe doa, euskararena ere jorratu behar da. Egia da hizkuntzan murgiltzean hori lor daitekeela, askoz aiseago “benetako” mintzaira aditzean jatorrizko hiztunak imitatzen ditugu eta. Bai, ados. Baina, ikasleei oinarritzko kontzeptu, aholku, gomendio eta arauen berri eman behar zaie, denek ez baitaukate abagunerik arnagune diren herrietan murgiltzeko. Eta ikaslea, herririk ez badauka, non jabetuko da ahoskeraz?

3. HEOC ETA AHOSKERA

Aipatu bezala, HEOCean ez dago gaitasun prosodikoaren aztarnarik. Areago, ez da gaitasuntzat hartzen. Edukietan xehatzen dira gaitasunak: soziolinguistikoa, testuala, linguistikoa eta estrategikoa. Horrek guztiak, ez bairik gabe, egundoko aurrerapena ekarri digu euskara-irakasleoi. Alderdi fonologikoa —prosodiari eta ahoskerari buruzkoa— ezkutatu samartuta dago gaitasun linguistikoaren barnean. Mailaz mailako zehaztapenetan eskaintzen dira adierazpide linguistikoaren erreferenteak, honako eskema honi jarraituz (Gonzalez de Txabarri Miranda et al., 2021, 53 or.):

1. Alderdi fonologikoa
2. Alderdi ortografikoa
3. Lexikoa eta alderdi semantikoa
4. Alderdi morfosintaktikoa
 - izen-sintagma
 - aditz-sintagma
 - sintaxia

Alderdi fonologiko hori nola dagoen zehazturik mailaz maila ikusiko dugu 1. taulan.

1. taula. Alderdi fonologikoak HEOCean (Gonzalez de Txabarri Miranada et al., 2021)

A1	A2	B1	B2	C1	C2
Euskararen bokalak eta kontsonanteak Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/ Diptongoak: /ai/ aizu, /ei/ zein, /oi/ goi, /au/ auzo, /eu/ euri Hiatoak Aldaketa fonetikoak: -Bustidura -Gortze-prozesua: bdg / ptk -Intonazioa: izen-abizenak, leku-izenak... Perpaus bakunaren intonazioa	A1eko bera eta: Prozesu fonologikoak -Palatalizazioa (/is/ > (ix): isilik > (ixilik), /in/ > (iñ): mina > (miña)...) -Bokal epentesia: /e/ Kontsonante epentesia: /r/ (hirurehun, laurretan...) -Asimilazioak eta elipsiak. (ez dira (eztira), ez naiz / (enaiz) Euskararen hitz luzeen azentu bikoitza. (osásuná, emákumeá)	A2ko gauza bera	A2+B1 eta: Aldaketa fonetikoak: -Pluralak azentua mugitzen du -Aditzak: silaba bakarreko oina duten aditzek azentua dute hasieran, gainerako aditzek ez bezala. -Aditzak jokatzean azentua aldatu egiten da. -BA eta EZ partikulak aditzetan: <i>datór, bádator, èztator</i> . -ERE partikula: <i>zu ere (zúre)</i> -Izen-sintagma konposatua denean: <i>zuré alaba</i>	B2ko gauza bera	B2ko gauza bera

Horrez gain, “Ebaluazioa” atalean ere azaltzen dira, zenbait kasutan, mailaz maila mintzameneko zuzentasunaren arloan: 1 zenbakia mailaz azpikoa da; 2 zenbakia aski da mailarako; 3 zenbakia mailaz gainekoa da (ikus 2. taula).

Euskaltegiok geure curriculuma garatu eta zabaldu behar izan dugunean, nahitaez HEOCaren alderdi fonologikoa aintzakotzat hartu behar izan dugu. Azaltze hutsa aurrerapen handia izan da. Hala ere, taulotakoak ikusita, nekez islatu ahal izan dugu geure programazioetan alderdi fonologikoa, eta are gutxiago ebaluatu, gehientsuenetan propio eta beren-beregi landu ez dugulako. Prosodiaz eta ahoskeraz apur bat jakinez gero, norbera konturatzen da den-dena nahasi samarturik dagoela: ahoskera eta prosodia lardaskaturik inongo irizpide garbiri jarraitu gabe. Ahoskera- eta-prosodia-kontuak tartekatzen dira A1, A2 eta B2 mailetan. Gainera, B2 mailan amaitzen dira horrelako kontuak, ikasleak guztiaren jabe izango balira bezala. A1 mailak berebiziko garrantzia dauka ahoskera kontuetan: ikasleari hasiera-hasieratik eman behar zaizkio eredu garbi, zuzen eta errazak. A1eko taulako zutabeak guztien artean luzeena izan behar luke, ikasleak dena ikasi behar du eta. Jakina, dagoeneko berandu samar gabiltza gaitasun prosodikoa HEOCaren ataltzat hartzeko, baina bere txikian garatu liteke bestelako baliabideak, ikerlanak, proposamenak eta arauak hartzen baditugu. Ebaluazioa dela-eta, C1eko zutabeak hartzen du toki gehien eta C2koan ez dago ezertxo ere; aitzitik, alderdi fonologikoan C1eko zutabea hutsik dago: B2ko zutabeak bere hartan dirau. Nolabaiteko ardura badagoela sumatzen da, baina irakasleok ahoskera eta intonazioa garrantzitsutzat jo arren HEOCaren lubaki handi samarra igartzen da alderdi fonologikoaren eta ebaluazioaren artean. Oraindik garaiz gaude horri guztiorri irtenbide egokia emateko. Lana eta konpromisoa baino ez dugu behar gaitasun prosodikoa taxuz garaturik, behar bezalako ebaluazioari heltzeko. Horren harira, Euskaltzaindiak aurrerapauso galanta eman zuen 1998an.

2. taula. Ebaluazioaren atalean deskriptoreetan alderdi fonologikoari buruz ageri direnak (Gonzalez de Txabarri Miranda et al., 2021)

A1	A2	B1	B2	C1	C2
<p>1. Hitzen ahoskerarekin ere maiz trabatzen da</p> <p>2. Fonologia mailan, Eragozpenak ditu fonema jakin batzuk ahoskatzeko</p> <p>3. Fonologia mailan, izan dezake eragozpenik hitzen bat edo beste ahoskatzeko</p>	<p>3. Ahoskera eta doinuera egokiak dira</p>	<p>2. Ahoskerari eta intonazioari dagokionez, zenbaitetan jatorrizko hizkuntzaren edota beste hizkuntzaren eragina edo interferentziak antzematen zaizkion arren, ulergarria da diskurtsoa.</p>	<p>2. Ahoskerari eta intonazioari dagokionez, zenbaitetan jatorrizko hizkuntzaren edota beste hizkuntzaren eragina edo interferentziak antzematen zaizkion arren, ulergarria da diskurtsoa.</p>	<p>1. Alderdi morfosintaktikoan, fonologikoan eta lexikoan egiten dituen akatsak ez dira koiunturalak.</p> <p>2. Alderdi fonologikoari, dagokionez, euskal fonemek (fonemen ahoskera, hitz barneko aldaketak, hitz-kateak) zuzen erabiltzen ditu. Intonazioari dagokionez, gai da berau egokitzeko eta esaldien enfasia behar bezala egiteko, esanahiaren ñabardura sotilak adieraztearen.</p> <p>3. Alderdi fonologikoari dagokionez, ez du inolako arazorik zuzen erabiltzeko euskal fonemak (fonemen ahoskera, hitz barneko aldaketak, hitz-kateak...); eta, intonazioari dagokionez, berriz, ez du eragozpenik berau egokitzeko eta esaldien enfasia behar bezala egiteko.</p>	

4. EUSKARA BATUAREN AHOSKERA ZAINDUA (EBAZ)

1998ko ekainaren 26an, duela 24 urte —harrezkero trumoi ugari euskararen gainera—, Euskaltzaindiak argitaratu zuen ahoskeraren inguruko lehenengo araua, eta oraingoz bakarra (Euskaltzaindia, 1998): euskara batuaren ahoskera zaindua, *EBAZ*, deritzona. Arau hau izan da, batez ere, hainbat urtean Lourdes Oñederraren ikerlanen emaitza (1994a, 1994b, 1994, c). Atarikoetan adierazten da euskal hedabideak ditugunetik hona, askori iruditzen zaiola ahoskeran ere batasunerako irizpideak ematea beharrezko zaiola; hala ere, ondo zehazten du hizkera zaindua, maila jasokoa, erabili behar direnerako direla: irrati-telebistetako berri-emanaldietarako, jendaurreko hitzaldietarako, eskolen azalpenetarako eta horien antzeko egoeretarako.

Iruditzen zait euskaltegiok sartzten garelako “antzeko egoera” horietan: euskara batua irakasten dugu, eta euskara batuak deklinabidean, aditzean eta morfosintaxian ez ezik, ahoskeran ere batasuna behar du. Irakasle batzuek esaten digute “maila jaso” kontzeptua agertzen denez gero, aski izango litzatekeela, C1en eta C2n azaltzea. Nire iritziz, ez. Ez dugu azaldu behar: gure curriculumetan txertatu beharrekoa da, eta gure programazioetan islatu eta garatu ataza egokien bitartez. Azalpen txikiak, bai, baina askoz gehiago jarduera handi-handiak gure ikasleek taxuzko ahoskera zain dezaten.

Euskaltzaindiaren 87. arau hau honela dago osatuta (Euskaltzaindia, 1998):

- Atarikoak
 - Batasuna zertarako
 - Zer da euskara batuaren ahoskera zaindua
 - Ahoskeraren aniztasuna eta arauen malgutasuna: arauak nola ulertu behar diren
- Arauak
 - Bokalak
 - Bokal-bilkurak
 - Kontsonanteak
 - Kontsonante-bilkurak

Beraz, irakasleok hortxe dugu oinarritzko eta ekidin ezineko gidalerro bat lanean has-teko.

5. AHOSKERARI ETA PROSODIARI BURUZKO PROPOSAMENAK, ARGIBIDEAK ETA IKERLANAK

Euskaltzaindiaren arauak arau, atal honetan ahoskeraren eta prosodiaren inguruko zen-bait proposamen, argibide eta ikerlan azalduko dira kronologikoki, irakasleontzat bali-agarri izan daitezkeenak.

5.1. EUSKAL AZENTUAZ

Lehenengo eta behin, azentuaren inguruko ikerlanak izan dira nagusi, batik bat. Txillardegik (1984) eta Hualdek (1994) bultzatu duten azentuera [+2, -1] —ezkerretatik hasita unitatearen bigarren silaba eta eskuinetatik hasita lehenengo silaba nabarmentzea—, aspalditxotik gailenduz joan zaigu. Ez da batere harritzeko azentuera hori zabaldu izana: Euskal Herriko erdialdeko eskualde handi batean azentu-molde nagusia dela izan dai-teke. Txillardegiren aburuz, Hizkuntzalaritza eta Soziolinguistikari atxikitako arrazoi-en-gatik "Mendebaldeko azentu-mota" hartu beharrean gaude ardaztat euskara batuan. Sarreran aipatu bezala, maiz entzun izan dugu euskarak ez daukala azenturik. Uste hori egia ez bada ere, gaztelaniaren aldean euskal azentua leunagoa da. Gure eskoletan hau xe da ikasleei irakatsi behar litzaiekeen lehenengo araua: *leun azentuatu*. Ondoko erdaren azentuak askoz tinkoagoak direla eta sortzen diren interferentziak nabarmenak dira. Esan dezagun, bada, azentua ez dagokiola beti hitzari, unitateari baino. Unitate hau ele-mentu desberdinez osatuta dago. Intonazioa, ostera, perpaus osoari dagokio. "Sintaxi-talde edo perpausen melodia, edo musika-lerroa, da intonazioa" (Txillardegi, 1984, 23. or.). Txillardegik bere proposamenean ematen dituen azentuketak intonazio normalean gertatzen dira, baiezpen normalean, alegia. Haren ustez hemendik kanpo gertatzen di-ren azentuketak, sarritan, anormalak dira.

Txillardegiren ikerlana azalpen hutsa da: ez du proposamen didaktikorik egiten, baina bai, eman egiten ditu gidalerroak. Hasteko, azentua zein tokitan ezarri behar den jaki-teko, lehenengo eta behin zertan den azentu-unitatea zehaztu behar dela. Honako ele-mentu hauetaz osatuta dago:

[(Proklitikoak) + Ardatza + (Enklitikoak)]

Klitikoek ez daramate azenturik. Ardatzaren aurrean jartzen badira proklitikoak deritze eta ardatzaren atzean enklitikoak (Txillardegi, 1984); adibidez, [Autóbusà badátòr] bai-eztapena; [Autóbusà bàdatòr] baldintza. Lehenengo "ba-" proklitikoa da, ez baitu azen-turik; bigarren "ba-" ez da proklitikoa, azentua baitu. "Ere" partikula oso enklitiko arrunta dugu, aurreko hitzari lotzen zaio-eta; esaterako, [Néu-keré egíngo dùt].

Ondoren, Txillardegik azentu-ereduaz dihardu: azentu nagusia; azentu bigarrenkaria edo oihartzuna; izenaren azentuketa; zenbait atzizkiren azentuketa; aditz-izenkiak, era-kusleak eta pertsona-izenordeak; edutezkoak; aditz jokatuak; hitz markatuak, hau da,

[+1] azentua hartzen dutenak; esaterako [kálè] edo [káfè]. Pluralak ere [+1] dira: [ár-giàk]. Mailegu berrien azentuketari ere heltzen dio.

Azkenik, kontsonante-multzoen ahoskeraz dihardu. Azken honi dagokio, hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren EBAZ araua: Txillardegiren proposamenaren ildokoa da. Niri neuri ere ikaragarri erasan zidan Txillardegiren lanak.

5.2. EUSKARA BATUA ETA ORTOEPIA

Txillardegiren proposamenetik urte batzuetara, artikulu bat argitaratu nuen HABEko orduko Zutabe aldizkarian haren ekarpen garrantzitsuaren berri emateko asmoz: “Euskara Batua eta Ortoepia” (Dieguez, 1991). Orduko idazkera eta ortografia islaturik dago artikuluan, hau da, “Euskaltzaindiaren aurre-arautegikoa”. Askok esaten zidaten “Ortoepia” berba irakurri eta zurtz eginda geratzen zirela, ez baitzekiten zehatz zer ote zen “Ortoepia”. Zenbait irakaslek irriz eta barrez komentatzen zidaten “ortopedia” hitzaren antz zuzena zuela. Artikuluaren hitzaurrean azaltzen dut zer den “Ortoepia”: “fonemen ahoskuntza zuzena erabakitzen duen zientzia, hizkuntza baten ahozko kodeaz arduratzen dena” (Dieguez, 1991). Asmoak asmo, orduko euskara-irakasleen barne-jarduerari eragitea izan nuen helburu, Txillardegiren proposamena aintzat hartzeko modukoa delako, eta, gainera, bakarra. Azkenean geneukan zutabe teoriko sendo bat gure eskoletan erabiltzeko. Ez geneukan inolako aitzakiarik. Hauxe jorratu nuen orduko artikuluan:

3. taula. Dieguez (1991): laburpena.

Txillardegiren proposamena: euskal azentua	Kontsonante-multzoen ahoskera	Ariketak
Azentu ereduaren oinarria Azentu-unitatea Izenaren azentuketa Zenbakarien azentuketa Zenbait atzizkiren azentuketa Aditz-izenkiak Erakusleak eta pertsona-izenordainak Edutezkoak Aditz jokatuak Hitz markatuak Mailegu berrien azentuketa	Leherkari gorra Frikari txistukariak Sudurkariak Albokariak Dardarkariak Kontsonante bikoitzak	Azentua lantzeko ariketak Beste zenbait ariketa-mota Testu idatziak (ozenki irakurri, komikiak irakurri eta antzerkialanak)

3. taulan suma daitekeenez gero, alderdi teorikoak toki handi samarra hartzen zuen: lehenengo bi zutabeak; hirugarren zutabea alderdi praktikoari dagokio. Antza denez, euskararen irakaskuntzarako nire proposamen honek ez zuen erdietsi nik espero nuen oihartzuna. Jende askok zoriondu, bai, baina hutsaren hurrengo izan zen ahalegina: salbuespenak salbuespen, inork ere ez zuen lekukoa hartu eta proposamen didaktikorik egin. Askok esaten zidaten proposamenak egitea ondo zegoela, baina hori guztia, batik bat kalean ikasi ohi zela. Baina, zein kaletan, zein herritan? Nik ez nuen batere garbi ikusten, eta gauza bera pentsatzen jarraitzen dut: hizkuntza guzti-guztietan irakasten bada, zergatik guk ez? Ez da azentua bakarrik; doinua, intonazioa eta ahoskera ere bai. Nahiz eta testuinguru hartan arrakasta gutxitxo izan, eskoletan jarraitu nuen ahoskera eta azentua lantzen, neure txikian. Zenbaitetan irakasle batzuek kontua azaltzeko eskatzen zidaten. Zabalkunde urria izan zuen, baina ni gustura geratu nintzen, irakasle-komunitatearen zati baten ulerkortasun eza gorabehera. Aiko-maiko egon nintzen bolada batean: horrek guztiak merezi ote zuen klasean lantzea? Jakina, emaitzek horrelaxe erakusten didate, eta ikasle gehientsuenek adierazten didate A1ean hasi beharko genukeela ahoskera eta prosodia lantzen.

5.3. AHOSKERA LANTZEKO ARGIBIDEAK ETA JARDUERAK

Urteak joan, urteak etorri, Euskaltzaindiaren EBAZ araua (1998) indarrean zegoelarik, ezer gutxi mugitzen zen esparru honetan, harik eta lau adituk *Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak. Laguntzarako materiala: teoria eta praktika* (2014) argitaratu zuten arte: Gotzon Aurrekoetxea; Aintzane Etxebarria; Iñaki Gaminde eta Urtza Garay. Guztien artean ikerlan eta artikuluko ugari egindakoak dira. Zenbat-gura azterketa egin dituzte han-hemenka. Haien ustez, hutsune nabari-nabaria betetzera zetorren liburua:

Esku artean duzun liburua, irakurle, bide-urratzailea duzu, zinez. Ez da orain artean ahozko euskara nola irakatsi behar den inoiz landu. Aitzindari lana egiten ari gara, kontzimentu osoz. Ahozkoa ozta-ozta heldu da ikasgeletara, eta heldu denetan gehienetan ipuinen eta kultura tradizionalaren euskarri moduan heldu da. Ahozko euskara ez da modu sistematiko eta erreglatuan inoiz landu. Eta ez da landu oinarririk eta lanabesik edo bitartekorik izan ez delako. Hutsune hori betetzera dator argitalpen hau. (Gaminde Terraza et al., 2014, 9. or.)

Liburuaren nondik norakoa argia da: Prosodiaren kontzeptutik abiatutik, gaitasun prosodikoa du aztergai, ariketak proposatzen ditu. Euskal azentua ere lantzen du esparru teorikoaren berri emanez. Gainera, azentu estandarerrako arauak ematen ditu, Euskaltzaindiak ez bezala, eta “ikasgelan jolasaren bidez egiteko jarduerak” gomendatzen ditu. Antzematen zaio xede didaktikoa, baina lehen hezkuntzari begira, batik bat. Horrez gain, intonazioari eskaintzen zaio atal oso bat eta “ikasgelan jolasaren bidez egiteko jarduerak” ere bai. Testuen prosodiak tarte handi samarra ere hartzen du aurreko ataletan ohiko jarduerak lagun. Informazio paralinguistikoaz ere dihardute oso atal interesgarrian, ariketa franko lagun. Emozioen mundua ere landu eta jarduera askoren berri ematen dute. Azkenik, bokatihoak nola adierazi aztertzen dute. Oso liburu interesgarri eta aitzindaria da, txalogarria orduan egindako ahalegina, baina nago honek ere oihartzun eta isla bakana izan ez ote duen lehen hezkuntzan zein euskararen irakaskuntzan. Hezkuntzako curriculumak gaingiroki ezagutzen ditut, baina, oker ez banago, ez da sumatzen HEOcean, programazioetan, eguneroko jarduera didaktikoetan inolako eraginik, salbuespenak salbuespen. Nahiz eta alderdi teorikoa sakon samarra izan, aholkatu eta gomendatzen dituen jolas-jarduerak erraz askoak dira aurrera eramaten. Horrexetaz baliatu behar genuke helduen euskararen ikas-irakas prozesuetan, hain zuzen ere.

5.4. AHOSKERA

Aurreko lanaren urte berean argitaratu zen *Ahoskera* izeneko liburua (Alberdi, 2014). Ahoskeraren eta prosodiaren gutxieneko oinarria ematea du helburua:

Ahoskera izena eman diogu liburuki honi, baina prosodia ere deitu geniezaiokeen; izan ere, kontsonanteen eta bokalen ahoskera-kontuek gainera, ahoskeraren oinarri den prosodiaz ere gutxieneko batzuk markatu nahi ditu. Beste modu batera esanda, hizkuntzaren eta hizketaren –buruaren eta ahotsaren– arteko mugetan sortzen den lehian, oreka puntu batzuk zedarritu eta argitu nahi ditu. (Alberdi, 2014, 9. or.)

Egileak uste du Euskaltzaindiak ahoskeraren inguruan emaniko arauak ez direla aski eta kezka azaltzen du:

Duela zenbait urte, ahoskera estandarra finkatzeko arauak eman zituen Euskaltzaindiak, eta horietatik abiatu beharra daukagu Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko EIMAN (Euskal Ikasmaterialgintza Programan). Euskaltzaindiaren arau horiek, ordea, bokalen eta kontsonanteen ahoskerari dagozkionak dira, eta, erraz ulertzekoa denez, ez dira aski hizketa naturalera hurbiltzeko. Irakasmaterialgintzaren premiek eta irakasleen eguneroko eskolajarduneko premiek harantzago joatea eskatzen dute, erabaki zenbait behin-behinekoak izanda ere. Ahoskerari gagozkiola, ezin egon gaitezke denbora luzeagoan zain erabaki ofizial behin betikoak noiz hartuko, bitartean erdararen moldeek gaina hartzen digutela. (Alberdi, 2014, 10. or.)


Argi dago Euskaltzaindiaren arauak nahitaezko abiapuntua dugula, baina, Alberdiren ustez, eskas geratzen dira eguneroko hizketara hurreratzeko. Lehen hezkuntzan bestelako premiak izanda, heldu zaie erabaki irmoak hartzeko garaia; osterantzean, erdarak xurgatuko ditu euskara ahoskatzeko jatorrizko erak. Liburua honela dago osatuta: lehenengo eta behin, euskara batuaren ahoskera zaindua, batik bat EBAZ araua; bigarrenik, euskal prosodia —arautu gabea—, esaldien erritmoa eta intonazioa, eta azentua. Liburu mehea da, 62 orrialdekoa, ondo egituratua eta azaldua, baina teoria hutsa da; ez du proposatzen inolako jarduera praktikorik.

Hala eta guztiz ere, nabari denez, lehen hezkuntzan nolabaiteko arduraren egon badago; nolana ere, nire iritziz, haren kezka ez bide dio eragin euskararen irakaskuntzari, eta HEOCean mailaz maila dauden aipamen bakanak kenduta, basamortu luze eta zabala da ahoskeraren eta prosodiaren alorra helduen euskararen irakaskuntzan. Ez dut esan nahi irakasle batzuek lantzen ez dutenik, baizik eta ez dugula errotik lantzen era egituratua: HEOCean gaitasun prosodikoak tokia izan behar luke; mailaz maila garapen zehatz eta argia izan behar luke; euskaltegiako curriculumetan zehaztapena izan behar luke eta, azkenik, eguneroko ataza eta jardueretan garapen eta praktika izan behar luke. Maila bertuan ezarri behar genituzke gaitasun linguistikoa, diskurtsiboa, soziokulturala, pragmatikoa eta prosodikoa: nahiz alor beregainak izan, elkarri eragiten diote eten gabe; batak huts egiten badu, beste guztiak desorekatu egiten dira. Nire iritziz, bost gaitasunetan trebatu behar genituzke ikasleak: ez dugu euskaldun osotarik lortuko, baldin eta gaitasun guztien jabe ez bada.

6. PROPOSAMEN CURRICULAR ETA DIDAKTIKOA

Eraikin oso bat eraiki beharrean gaude; teiltua amaierarako utziko dugu. Beraz, has-teko eta behin, zentzuzkoena zimentarri sendo eta gotorrak ezartzea izango da. Ez le-goke batere txarto, baldin eta HABEk, HEOCaren hurrengo berrikusketan, gaitasun pro-sodikoa txertatuko balu gainerako gaitasunen maila beretsuan: “Helduen euskalduntze-aren osagaiak” deritzon atalean, edukietan gaitasun prosodikoak bosgarrena izan behar luke: V-Gaitasun prosodikoaren garapena.

1. irudia. Gaitasun arteko erlazioa ahozketasunean (Gaminte Terraza et al., 2014, 14. or.)



Horrez gain, “Helduen euskalduntzea mailaz maila” deritzon atalean, mailaz maila azaldu behar litzateke gaitasun prosodikoaren agerpena: A1etik C2ra. Horretarako alderdi fonologikoa adierazpide linguistikoetatik erauzi eta, aipatu bezala, garapen bere-zia izan behar luke. Lan hori egin liteke artikuluan zehar aipaturiko azterlan guztiak aint-zat harturik. Ez da ezer berririk egin behar, baizik eta gaitasun prosodikoa mailaz maila egokitzea. Ez dirudi oso zaila izango litzatekeenik: aski izango litzateke adituren batekin harremanetan jarri, eta HABE lagun, HEOCean txertatzea; ni neu ere prest nengo-ke laguntza emateko. Aurrerapen eskerga izango litzateke, eta, horrela, gure eraikinak bost zutabeak edukiko lituzke, nahitaezkoak, oinarrizkoak eta funtsezkoak.

Gora egin eta eraikitzeotan, lehenengo solairua osatzea euskaltegi- dagokigu: curricu-lum guztietan HEOCeko gaitasun prosodikoaren garapena azaldu behar litzateke. Hori hezur-mamitzeko, HABEk han-hemenka ikastaroak antola litzake, ahalik eta irakasle gehienengana hel dadin gaitasun prosodikoaren mamia eta adierazia. Behin trebatu-rik,

ez litzateke arrunt gaitza izan behar euskaltegiek beren curriculumen egokitzea. Ulertarazi behar litzateke norainoko garrantzia daukan gaitasun prosodikoak. Aldekoak eta aurkakoak leudeke, baina, behinik behin hedapena abian jar liteke. Dena dela, prozesu hau ez litzateke ustekabekoa eta lasterra izan behar; askoz hobeto jasotzen du lurra zirimiria euri-jasa baino: eulondoa gozoagoa izango litzateke, inondik ere.

Hirugarren solairua eraiki behar litzateke gure material eta langaien gainean: ariketak, jarduera, atazak, sekuentziak... Hortxe, hain zuzen ere, hartuko luke zentzu guztia gaitasun prosodikoak: eguneroko jardueran. Batetik, *focus on form* moduko bat egin liteke erabiltzen ditugun atazetan, eta bestetik, aparteko jarduerak egin litezke jarduera prosodikoa lantzeko.

2. irudia. Gaitasun prosodikoa eraikitzeke proposamena (berezko ekoizpena)



Besteak beste, honako ariketa mota hauek egin litezke:

- Azentua lantzeko ariketa analitikoak: beti ere ozenki.
- Ozenki irakurtzeko testuak: batez ere irratian ozenki irakurtzeko erabiltzen diren testuak.
- Komikietan pertsonaia bana hartu eta ozenki irakurri.
- Antzeppen laburrak.

Bestalde, aipatutako oinarrizko ikerlan honetan (Gaminde Terraza et al., 2014), Cortés Moreno irakasleak (2001) espainierazko prosodia lantzeko zenbait material didaktiko aztertu eta adierazi zuen gehienek ezaugarri bertsua zutela: monotonia. Bai azentua, bai intonazioa lantzeko jarduera gehienak identifikatzeko, entzuteko edota errepikatzeke diseinatuta zeuden. Kontua ez da guztiak erabili eta ikaslea gogaitaraztea, baizik eta euskaltegi bakoitzak bere curriculumaren arabera, programazioan txertatu eta mailaz maila, aurrera eraman, harik eta ikasleak zeharo bereganatu eta ohitu arte. Maila eta unitate guztietan dinamika bizi eta atsegina abiarazita, ikasleak ohartuko direla askoz hobeto mintzatzen direla eta, zer esanik ez, ulertu ere askoz hobeto ulertzen dutela, irakasleok behar beste lanabes emango dizkiegu eta. Ukaezina da onurak alderdi guztietan gertatuko direla: ikasleei kalte ez die egingo. Kaltea, orain hartzen dute ikasleek arlo prosodikoa ahantzi samartuta dugu eta. Dena dela, ikasleei eraginkor irakasteak ez dirudi batere samurra denik: ez ditzagun ahaztu Lourdes Oñederra irakasle eta euskaltzainak adierazitakoa, 2019ko irailean Euskaltzaindiak Donostian antolaturiko ikastaroan: "Ahoskera ezin da gramatika edo hiztegia bezala ikasi" (Euskaltzaindia, 2019). Argi dago bestelako ataza eta jarduera bereziak egin behar direla eskoletan, ikasleek egoki ahoskatzen ikasiko badute. Jolastasuna izan behar da oinarri eta gidari: ariketa erraz eta jostagarriak. Hala eta guztiz ere, Cortés Morenoren (2001) azentua eta intonazioa lantzeko jarduerak aztertzeke dira: itsasargi bikaina izan liteke irakasleontzat.

4. taula. Azentua eta intonazioa lantzeko jarduerak, Cortés Moreno (2001) eta Gaminde Terraza et al.-en (2014) ekarpenak aintzat hartuta.

Azentua lantzeko jarduerak	Intonazioa lantzeko jarduerak
<ul style="list-style-type: none"> • Hitz-zerrenda entzun eta errepikatu. Entzun eta errepikatu. • Hitz-zerrenda edo testua entzun eta adierazi azentudun silabak zein diren. • Entzun olerkia eta errepikatu. • Hitz-zerrenda batean azentuaren tokia zuzendu. • Olerkia buruz ikasi. • Entzun hitz-zerrenda bat eta adierazi azentudun silaba zein den. • Entzun eta errepikatu irakasleak edo azpitu-luak dituen bideoa esandakoa. • Transkribatu era fonologikoa diskurtsoa azentua non dagoen adieraziz. • Ozenki irakurri testu edo esaldiak. • Entzun eta aukeratu zuzena. Hitzza asmatu eta hitz hori soilik erabiliz ikaskidearekin hitz egin. • Azentua kontuan izanik, lotu hitzak. • Binaka edo irakaslearekin elkarrizketak izan. • Hitzak sailkatu azentuaren arabera. • Zenbait enuntziaturen artean intonazioari dagozkion berdintasunak eta ezberdintasunak identifikatu. • Hitz bi entzunda, adierazi azentu berbera duten ala ez. • Irakurri (eta grabatu) eta gero kontrastatu norberaren intonazioa modeloarekin. • Hitz-multzoa emanda, adierazi zer hitz ez datorren bat azentua kontuan izanik. • Entzun eta erantzun, ikasleek egiten duten ahozko testua grabatu ondoren aztertzeko. • Azentu tonikoa eta grafikoaren arteko erlazioan arreta jarri. • Entzun esaldi mota ezberdinak eta adierazi baieztapenak ala galderak diren. • Entzun eta hautatu idatzizko esaldi ezberdinen artean bat. • Entzun esaldiak eta adierazi kasu bakoitzean bukaera gorantz ala beherantz doan. • Eraldatu, berriro eraiki edo sortu esaldiak edota elkarrizketak eredu jarraituz. • Diskurtsoaren intonazioa jarraitu eskuarekin edota besoarekin egindako mugimenduekin. • Zenbait enuntziatu entzun eta transkripzioak behatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbait enuntziatu entzun eta hautatu zein dagozkion ikasleek duten kurba melodikoari. • Entzun elkarrizketa eta puntuazio-markak jarri transkripzio batean. • Entzun, irakurri eta transkribatu intonazioa kontuan izanik. • Intonazioa kontuan hartzen duen testu idatziaren transkripzioa emanda, tonu inflexioen zentzua azaldu. • Pare minimoak: ikasleak bi galdera eta erantzuna aurrean dituela zer galdera den egokiena hautatu behar du. • Grabazioa entzun eta parte-hartzailearen jarrerari buruzko aukera anitzeko testa erantzun. • Talde fonikoetan zatitu esaldi idatziak eta intonazioa kontuan izanik aztertu.

Beraz, egin dugun ibilbide honetan azpimarra berezia egin nahi izan diegu ahoskerari eta prosodiari, bereziki azentuaren kontuari. Ikusi dugu euskararen irakaskuntzari erreparaturik, etxea eraikitzeke zimentarri eta zutabe sendoak badauzkagula, baina auserdia, adorea eta konpromisoa behar ditugula. Ezbairik gabe, puzzlea osatzeko piezak badauzkagu: lehenengoa ipinita, gainerako guztiak berez etorriko dira erreskadan, eta puzzle zoragarri ederra izango dugu luze gabe: euskarak taxuz eta itxuraz ondo ahoskatzea merezi du.

Bibliografia

- Alberdi, A. (2014). *Ahoskera*. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/liburua/ahoskera/>
- Cortés Moreno, M. (2001). Percepción y adquisición de la entonación española en enunciados de habla espontánea: el caso de los estudiantes taiwaneses. *Estudios de Fonética Experimental*, 11, 90-119. <https://raco.cat/index.php/EFE/article/view/143935/195623>
- Dieguez, K. (1991). Euskara batua eta Ortoepia. *Zutabe*, 26, 43-60. <http://www.irakasbil.eus/mod//didaktea/euskara-batua-eta-ortoepia>
- Euskaltzaindia. (1998). 87. araua. Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua. *Euskaltzaindia*. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenarauak&view=frontpage&Itemid=424&lang=eu&arauaid=87
- Euskaltzaindia. (2019, otsailaren 19a). *Oñederra Miren Lourdes - Ahoskera arautu eta i(r)akas aldaiteke?* [Bideoa]. YouTube. <https://youtu.be/r0tccOmIRvo>
- Gaminde Terraza, I., Aurrekoetxea Olabarri, G.; Etxebarria Lejarreta, A., Garay Ruiz, U., eta Romero Andonegui, A. (2014). *Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak: Laguntzarako materiala: teoria eta praktika*. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Gonzalez de Txabarri, J.J., Elosegui, L., Agirre, H., Larramendi, A., Maiz, A., eta Gonzalez de Txabarri, L.M.,(2021). *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumuma (HEOC)*, 2. arg. HABE. http://www.irakasbil.eus/didaktea/heoc_2021_argitalpen_eguneratua
- Hondarraitz taldea (Artola, L., Letamendia, J. A., Mujika, J. A., Olaziregi, I.) (1981). *Jaldi hadi irakaslearen gida liburua*. Elkar.
- Hualde, J. I. (1994). Euskal azentuak eta euskara batua, *Euskera*, 39(3), 1549-1568. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/50051.pdf#page=1>
- Mitxelena, K. (1988). *Euskal idazlan guztiak (9 liburua) (MEIG)*. Euskal Editoreen Elkarte.
- Oñederra, L. (1994a). Ahoskera baturantz. I, Ahoskera araupetzeaz. *Euskara*, 39(3), 1523-1526. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50047.pdf>
- Oñederra, L. (1994b). Ahoskera baturantz. III, Abiaburu zehatz batzuk. *Euskara*, 39(3), 1533-1542. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/50049.pdf>
- Oñederra, L. (1994c). Ahoskera araupetzeaz. *Euskera*, 39(3), 1589-1605. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/50054.pdf#page=1>
- Txillardegi (Alvarez Enparanza, J. L.). (1984). *Euskal azentua*. Elkar.

Gehiago jakiteko

- Artano, J. (esataria). (2021, ekainaren 23a). Julia Marin: "Euskarak badu doinu propioa, baina ez zaio batere kasurik egiten". [Audio-podcast]. https://eitb.eus/A_bd09K7/
- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I., Gandarias, L., eta Harignordoqui, E. (2011). EDAK: euskal azentuaren etiketatze bidean lehen emaitzak, in G. Aurrekoetxea eta I. Gaminde, I. (koord.), *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I. Jardunaldiak I. Jornadas sobre Prosodia y Educación*, (101-114 or.). Servicio de Publicaciones UPV-EHU.
- Bartolí Rigol, M. (2005). La pronunciación en la clase de lenguas extranjeras, *PHONIKA*, 1, <https://revistes.ub.edu/index.php/phonica/article/view/5565/7353>
- Etzebarria Lejarreta, A., Gaminde Terraza, I., Garay Ruiz, U., eta Romero Andonegi, A. (2011). Prosodiaren garrantzia kortesia erlazioetan, *Euskalingua*, 18, 13-21. <http://mendebalde.eus/euskalinguak/Euskalingua%2018/Prosodiaren%20garrantzia%20kortesia%20erlazioetan.pdf>
- Gaminde, I. (2005). Euskara Batuaren Azentuaz. In J. Agirreazkuenaga Mendia eta H. Knörr (koord.), *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia* (257-272 or.). Euskaltzaindia.
- Gaminde, I. (2007). Soinua eta irudia emozioen pertzepzioan. *Tantak*, 37, 43-64. <http://hdl.handle.net/10810/47454>
- Gonçalves, E. (2002). Importancia de la prosodia en la enseñanza de lengua extranjera. 2. *Congreso Brasileño de Hispanistas, San Pablo, (SPSPSP, Brazil)*. http://www.proceedings.scielo.br/scielo.php?script=sci_arttext&pid=MSC0000000012002000100021&lng=en&nrm=iso.
- Marin Arteaga, J. (2019). Nola ikasi ahoskerak. *Euskera*, 64(2), 977-987. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/82980.pdf#page=1>
- Oñederra, L. (2004). *Fonetika Fonologia Hitzez Hitz*. UPV-EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/49765>
- Santamaria, E. (2007). Enseñar prosodia en el aula: Reflexiones y propuestas. in E. Balmaseda Maestu (ed.), *Las destrezas orales en la enseñanza del español L2-LE. XVII Congreso Internacional de la Asociación para la Enseñanza del Español como Lengua Extranjera (ASELE), 2006ko irailaren 27tik 30era, 2*, (1237-1250 or.). Servicio de Publicaciones de la Universidad de La Rioja.